

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Gizarte garatzeko eta gizarteratzea sustatzeko irabazi-asmorik gabeko elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia**

BDNS(Identif.): 537190

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/537190>).

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko azaroaren 27ko erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, toki-eremuan egiten diren edo Laudioko udalarentzat interesgarriak diren gizarte-jarduerak garatzeko eta gizarteratzea sustatzeko irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta Herriko Adinekoen Zentro Soziokulturalei diru-laguntzak emateko deialdia onartzen da.

Laudio, 2020ko abenduaren 2a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*